

Getaria. "Arkeologia museoa zabalik bihartik aurrera, Elkanoren erakusketarekin batera"

Getariako udalak, turismo sailetik bideratuta, arkeologia museoa zabalduko du bihartik aurrera Elkanon erakusketarekin batera, iaz egon zen leku berdinean, turismo bulegoa eta txakoliñan bulegoaren alboan, ateak irekita izango dituelarik, bisitari edo ikusi nahi duen edonorrentzat.

Aste Santutako egun guztietan, apirilaren 6tik 19ra bitartean, udara bitartean asteburuetan eta udaran guztian zehar egunero egongo da hau zabalik.

Turismo bulegoa ere egun hoietan egongo litzake irekita eta edonorrek dudaren bat argitu edo turismoko edozer gauzatzaz zerbait jakin nahi izanez gero, bertako 943140957 telefonora deitu dezake aipatu egunetan.

Udalarentzat kosturik ez

Arkeologia museoa jartzea, udalatik proposatu arren, Udalari ez zaio ezer kostako Andoni Aristi alkatearen hitzetan eta aldundiaren kultura sailatik, laguntza haundia izango dugu.

Aristik azaldu duenez, herrian Zehazten enpresak egindako indusketei esker, material eta historia anitz eskuratu ditugu. 800 urte betetzen dugun ospakizunak aprobetxatuz eta, urte hontan eta historiari buruzko hitzaldi zikloak ere abian ditugunez, urte aproposa iruditzen zaigu, arkeologiari buruzko erakusketa jartzeko.

Errepideko parkea

Bestalde, Udala N-634 errepide artean plaza aurrean dagoen parkea txukuntzen dabil azken aldian, bertan, loreez gain txalupa eta aingura bat apaingarri gisa jarri dituelarik azken asteetan.

Txalupa Juan Santana itsas ontziak emandakoa da eta aingura, berriz, Iribar itsas ontziak San Anton mendi atzeko uretatik ateratakoa. Udalak jasota zuen hau, iragan astean errepide arteko parkean jarri dutelarik. Honetaz gain lore batzuk ere jarriko ditu Udalak herrian zehar, alkateak herritarrei guztionak diren gauz guztiak, errespetatu eta zaintzea eskatzeko aprobetxatu nahi duelarik.